

KULTURA

[e]
ESZENA

Hikaren antzezlan berria. Hika taldeak Alessandro Baricco idazlearen *Zeta* liburua taula gainera eramateko entseguetan murgildurik eman ditu azken hilabeteak.

Egun, ikuskizunaren hainbat alderdi lan-tzen ari dira Agurtzane Intxaurrearen zuzendaritzapean, kutsu poetiko handiko narrazio ederraren funtsa harrapatu eta

antzokietara eramateko xedez. *Zeta*-ren estreinaldia (*Seda*, gaztelaniazko bertsioan) ekainaren 2tik 5era izango da, Donostiako Antzokian.

Hikaren erronkarik zailena

OIER GUILLAN

Martxoaren 20a da, igandea. Aspaldiko negurik hotzenaren ostean, eguraldiak lehen urratsak egin ditu udaberrirantz. Berroak Hika antzerki taldearen entsegu lokalean ere irekiarazi ditu leihoak, baina ez da beroa lokaletik bueltaka dabiltzan antzerkilarien izerdien iturri bakarra: Alessandro Bariccoren *Zeta* liburua antzerkira eraman nahian dabiltza, eta hauxe da entseguen lehenengo faseari amaiera emateko abagunea.

Victor Criadok eta Itziar Ituñok antzezten dituzte liburuko pertsonaia nagusiak, Herve Joncour eta haren emazte Helene, hurrenez hurren. Haiekin batera dabiltza testua errepasatzen eta berotzeko ariketak egiten, irribarrez tarteka, Baldabioù izeneko pertsonaia edo Kandido Uranga, Madame Blanche edo Lierni Fresnedo, Hara Kei edo Mikel Tello, begi orientalak ez dituen emakumea



KANDIDO URANGA eta Patxi Gonzalez aktoreak, *Zeta*-ren entseguan. Atzean, Maria Aparicio. JON URBE / ARGAZKI PRESS

